

# ALTZA



1.998ko Urria \* Altzako Herri Batasuna \* Dohainik \* 1.urtea \* 3.Zenbakia

## Euskal Herritarroken garaia da

### konponbide garaia da



Euskal Herritarrok

Euskal Herriari eztarria estutzen zaio hitzegin ez dezan, erabakiaren beldur direlako, gehingoaren beldur. Eta herri hau gehiegi zigortu dutelako konponbidearen garaia da.

Autodeterminazio eskubidea errespetatzen ez duen estatuak ezin du inolaz ere bere burua demokratikotzat jo. Beraz, herri honen eskubideak ezin direlako gehiago ukatu eta zapaldu, konponbidearen garaia da. Konponbidearen garaia da, guk, Euskal Herritarrok, ozenki hala adierazi dugulako modu eta toki desberdinetan. Gure herriak, etorkizuna libreki eraiki ahal izateko konponbide demokratiko bat behar du, eta euskal gi-

zarteak dituen arazoei irtenbidea emateko, enpleguan, hezkuntzan, euskaran, etxebizitzan...

Horregatik Euskal herritarroken garaia da. Gure hitza eta erabakia errespetatua izan behar du, faxismo garaiarekin bukatuz eta benetako demokraziari bide eginez. Nork daki guk baino hobeto zer behar duen euskal gizarteak, zeintzuk diren arazoak, premiak, beharrak... Gurea da hitza eta erabakia. Gurea eskubidea.

Horregatik Euskal Herritarroken aurkezpena une garrantzitsu honetan ematen da, eta Herri Batasunaren siglak hauteskunde hauetan bigarren maila batean geratuko dira. Gure siglen ginetik Euskal Herria

dagoelako. Honek guztiak ez du esan nahi Herri Batasuna desagertuko denik. HBk azken 20 urteetan egin izan duen bezala lanean jarraituko du, indarrez eta kemenez.

Baina hau, batera kolpatzeko garaia da, indarrak batuz. Euskal Herritarrok sektore ezberdinen plataforma bat da, amankomunezko proiektu batekin: Euskal Herria osorako burujabetasunean oinarritutako marko berriaren lorpena, aldaketa sozialak bideratzeko eta desberdintasunezko egoerari buelta emateko. Abertzalea, progresista eta ezkertiarra, hauxe da Euskal Herritarrok.

Editoriala

Egun hauetan sarritan entzuten ari gara une historiko batean gaudela. Gauzak mugitzen ari direla dirudi, eta ezker abertzalean ez ezik, gizartean ere giro baikorra nabari da. Ezker abertzalearen harreman dinamika fruituak ematen ari da, eta jada ez gara marko politiko honen agorpenaz hitzeginen dugun bakarrak. Duela 20 urte marko honen alde egin zutenak ere gaur gurekin bat datoz. Orain gatazkaren izaera politikoa errekonozitzen da, eta bakea eta subiranotasuna batera doaz. Koiuntura honetan estatuak ez du alternatiba politikorik. Ez dute sasi eskeintza berri bat subiranotasunatik urruntzeko. Eta hauxe da bide gurutzeta. Lizarrako akordioak P.Pren errepresioari inizatiba politikoeekin erantzuten dio, eta herriaren hitza eta erabakia errespetatzea daitezen aldarrikatzen du. ETAk suetenarekin aurrerapauso bat ematen du eta euskal gizarteari zuzentzen zaio, hau konprometitu dadin, Euskal herria irabazteko dugulako.. Gure esku dago P.P mugiaraztea eta Euskal Herria eraikitzea. Eta bitartean hilaren 25ean izango diren hauteskunde autonomikoetan E.Hri botoa emanez etorkizunaren jabe izateko hurbilago izango gara.

# Urriaren 25ean subiranotasunaren

➤ Urriaren 25ean, Euskal Herritarrok azken hauteskundeetako emaitzak baietz hobetu!!!

	ERROLDA					HERRI BATASUNA					EA		
	86.Auton.	89.Oroko	90.Auton.	94.Auton.	96.Oroko	'86	'89	'90	'94	'96	'86	'89	'90
<b>ALTZA</b>	18178	17993	19537	19345	19326	2501	2274	2236	1866	1744	1715	1064	1064
						EE					PP		
						1598	1294	1046	-	-	158	595	44

**H** auteskunde kanpaina jada gainean dugu. Mezuen bonbardeaketa hasi da. Guretzat ez da beste kanpaina bat gehiago izango, inoiz ez da izan, baina une honetan gutxiago. Abertzaleentzat hauteskunde kontraesanak izanik (3 herrialde) gure proiektua sendotzeko urratsa paregabea izango da. Oraingoan ez gara HB bezala aurkeztuko, ondo dakizuen bezala EH siglapean joango baikara, eta hau berria izanik, kanpainaren diseinua ere berria izango da.

**K** anpaina hau era ezberdinez burutuko dugu, propagandarako legea - gu izorratzeko, isladatzeko- aldatu baitute, eta honek bai aurrekanpaina eta bai kanpaina berria baldintzatzen ditu. Aurre-

kanpainen, Urriaren 8 arte, orain arte kanpainetan burututako lana, hau da: propaganda etab... Kanpainen berriz, Urriaren 9tik 23 bitartean, isunaz ez betetzeko, beste era batera planteatuko dugu: kotxekarabanak eta megafonia, beti bezala, eta Altzak dituen 4 gune nagusietan progandadun mahaiak jarri, orri informatiboen banaketa, guneak apaingarri mugikorraz hornitu, eta horretarako Udaletxeak ipintzen dituen panel-etan txartelak jarri. Beraz, kale-etako zein etxeetako hormetan txartelik ez. Kanpaina honetan ere mitin bat izango dugu Angel M<sup>o</sup> Elkano (Mahai Nazionaleko kidea) eta Begoña Sagarzazu (Presoen kolektiboko mintzakidetza) paregabeako gonbidatuekin!

**I** noiz baino gehiago harremanetan murgildu beharra dugu. Atze-

rantz begiratu gero, eskuz esku ekimenak burura datozkigu, eta hori da momentu honetan su ta gar egin behar duguna gaurdanik hasita, jende guztiarekin, berririo diogu, jende guztiarekin harremanetan, harreman zuzena, hasi beharra dugu, gauden abagaduneak ( Lizarrako akordioa, Erakundearen suetena) izugarritzko aukerak eskaintzen baitzizkigu lan hau egiteko, beti jakinda, hain denbora laburrean oso zaila izango dugula kriston emaitzak lortzea, orain ondo lan egin ezgero emaitzak hobetuko ditugu, eta Ekainaren 12an egingo diren hauteskunde munizipalarako posizio on onean kokatuko gara.

**D** enok ezagutzen dugu boturik ematekotan guri emango diguna baina orain arte inoiz botatu ez

# aldeko apostua

		EAJ					PSOE				
'94	'96	'86	'89	'90	'94	'96	'86	'89	'90	'94	'96
988	1101	882	894	1169	1168	1164	4025	4146	3515	2010	4930
		IU									
1095	1820	-	-	-	1084	1497					

duena, zein aurreko urtetan guri botua eman ziguna baina azkeneko arrazoi ezberdinengatik abstentzioa gorpuztera pasa dena. Gutako bakoitzak abertzale eta ezkertiar abstentzionistak identifikatzen jakin behar du, ondoren bizi dugun uneak duen garrantzia eta zergatik EHri botua eman adierazteko. Botu biltzaile militanteak izan behar dugu. Zer esanik ez, botatzera lehendabiziz joango diren gazteekin egin behar den lana, Euskal Herria eraikitzeke aukerarik onena EHrena dela esplikatzen eta botoaren garrantziaz adiera eman.

**B**etidanik esan dugu abstentzioak HBren ez zuela eraginik, HBren botuemailea fidela zela eta honelako argudioak, baina erreali -

tateak 90etik aurrera, behin eta berriro, erakutsi digu emaitzak bestelakoak direla, HBk Altzan botu kopuru polita mantentzen badu ere, gure norabidea, tarranta beherantza doala, HB botatzen ez duten ezkertiar eta abertzaleen botuak beste alderdi politikotara ez doazela (koadroa ikusi), abstentziora baizik. Beraz, lana egon badago. Lehen bait lehen ekin diezaiogun!!

**A**h!, izenburuan jarri dugun leloari itzuliz, hau idazten dugunok apustu bat luzatzen dugu: "doble contra sencillo" baietz ezkertiar eta abertzaleen botuak ondu!! %5eko hazkundea barietiz!!

## Iritzia

Aurten lehenengo aldiz parte hartuko dut hauteskunde batzuetan, eta hau dela eta lerrotxo hauek idazte eskatu didate.

Hainbeste sigla eta terminoen artean egia esan erraza da galtzea, eta horregatik, gazte askok, eta ez hain gazteak pasatzea erabakitzen dugu eta ez gara konturatzen hauteskunde hauetan eta etorriko diren besteetan gure etorkizuna markatuko dela. Ez ditut aukera politiko guztiak orain azalduko, ez baitut tokirik, baina bai azalduko dut zer suposatzen duen niretzat Euskal herritarroken alde bozkatzea.

Lehenik eta behin abertzaletasuna suposatzen dutelako. Estatu libre bat, Euskal Herria, identitate propioa dugulako eta gutxienez noraino iritsi nahi dugun erabakitzeko eskubidea dugulako.

Bigarrenik ezkertiarra delako, hau da, lanaren alde, etxebizitza, gazteak... eta ezetz esatea bankari eta enpre-sariei, poltsikoak beteta izan arren gero eta gehiago nahi dutelako. Gizarte justu bat.

Nik Euskal Herritarrok. Zuk zeuk aukeratu.

**Xabier Garmendia  
Herrerako gaztea**

# EUSKAL HERRIAREN ALDEKO APOSTUA

## Agenda

- URRIAK 5:** Euskal herritarroken aurkezpena larratxoko eskolan. 19:30  
**URRIAK 6:** Hitzegin Plataformaren aurkezpena aurkezpena Kasares Kultur Etxean.  
**URRIAK 7:** Pegada arratsaldeko 7etan.  
**URRIAK 8:** Kanpainaren hasiera.  
**URRIAK 9:** Arratsaldeko 7:30etan kotxe karabana.  
**URRIAK 10:** Larratxo eguna. 11:00/14:00  
**URRIAK 11:** Megafonia eta mitina Trintxerpen.  
**URRIAK 12:** Manifestazio nazionala Donostian eta Mitin nazionala belodromoan.  
**URRIAK 13:** Megafonia.  
**URRIAK 14:** Irlanda: Erakusketa eta bideo emanaldia Kasaresen 19:30.  
Mitina Altzako Plaza Gorrian Angel M<sup>o</sup> Elkano eta Begoña Sagarzazurekin. 20:00etan.  
**URRIAK 15:** Irlanda: Txente Rekondoren hitzaldia. Kasares 19:30etan.  
**URRIAK 16:** Kotxe karabana. 19:30.  
**URRIAK 17:** Harria eguna. 11:00/14:00  
**URRIAK 18:** Nafarroa Oinez.  
**URRIAK 19:** Herrera eguna. 19:00/21:00  
**URRIAK 20:** Altza gaina eguna. 19:00/21:00  
**URRIAK 21:** Larratxo eguna. 19:00/21:00  
**URRIAK 22:** Harria eguna. 19:00/21:00  
Interbentore eta apoderatu bilera. Txalakan 20:00etan.  
**URRIAK 23:** Megafonia. 11:00/14:00  
Kotxe karabana. 19:00etan  
Afarla (1000-1200pzta)  
**URRIAK 24:** Kanpaina bukaera Iruñean.  
**URRIAK 25:** Hauteskundeak  
Luntx-errekuento.

### ALTZA EGINEZ ZURE ETXEAN

**Opini3n, temas exclusivos de Altza, entrevistas, agenda... Rellena esta ficha y haznosla llegar a Txalaka. Recibir3s la revista de Herri Batasuna de Altza totalmente gratis.**

**TXALAKA ELKARTEA, LARRATXO 20.  
Tlf: 943. 39.28.75**

IZENA/nombre.....

ABIZENAK/apellidos:.....

HELBIDEA/direcci3n:.....

TELEFONOA.....